

**FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA,  
NAFARROAKO ADMINISTRAZIO  
PUBLIKOETAN NAFARROAKO BEREZKO  
HIZKUNTZEN ERABILERA ARAUTZEN  
DUENA.**

**JUSTIFIKAZIO-MEMORIA**

Proiektu honen helburua da Nafarroako bi hizkuntza berezkoen, euskararen eta gaztelaniaren, existentzia onartu eta haren errealitateari erantzutea, Euskarari buruzko Foru Legean onartzen den moduan, eta Nafarroako eskualdekate eta errealitate soziolingüistikoan ezarritako mailaketa kontuan hartuz egitea. Horrela, foru dekretu honek eremu euskaldunean modu eraginkorrean bermatu nahi ditu euskarak eremu horretan onartuta dituen ofizialtasunetik eratorritako eskubide guztiak eta, eremu misto deiturikoan, Euskarari buruzko Foru Legeak herritarrei hizkuntza aukeratzeko onartzen dien eskubidea. Era berean, foru dekretu honek jarduketa administratiboa egokitu nahi du eremu ez-euskalduneko herritarrek administrazio publikoen aurrean euskaraz aritzeko onartuta duten eskubideari erantzun positiboa emateko.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiak dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea. 2.2 artikuluan gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du Nafarroa osoan eta euskararena Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoa izanen da.

Euskarari buruzko Foru Lege horrek hiru hizkuntza eremu ezartzen ditu Nafarroan eta foru dekretu honek eremu horiek hartzen ditu bere baitan. Eremu euskalduna, zeinetan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak baitira eta herritarrek eskubidea baitute administrazio publikoekiko harremanetan bi hizkuntzak erabiltzeko eta haiek aukeraturako hizkuntzan hartuak izateko. Eremu mistoa, zeinetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea baitute Nafarroako administrazio publikoen aurrean aritzerakoan. Eta eremu ez-euskalduna, zeinetan herritarrei onartzen baitzaie Nafarroako administrazio publikoen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea. Hori horrela, Euskarari buruzko Foru Legeak onartzen du herritarrek eskubidea dutela hiru eremu horietan Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko, foru lege horretan berean ezarritako terminoetan. Halaber, administrazio publiko horiek premiatzen ditu

**PROYECTO DE DECRETO FORAL POR EL  
QUE SE REGULA EL USO DE LAS LENGUAS  
PROPIAS DE NAVARRA EN SUS  
ADMINISTRACIONES PÚBLICAS.**

**MEMORIA JUSTIFICATIVA**

El presente proyecto de Decreto Foral tiene por objeto responder a la realidad de la existencia de dos lenguas que son propias de Navarra, euskera y castellano, tal y como se reconoce en Ley Foral del Vasconce, y hacerlo teniendo en cuenta la gradación establecida por la zonificación y la realidad sociolingüística de Navarra. De este modo, el presente Decreto Foral pretende, en la zona vascófona, garantizar de forma efectiva todos los derechos derivados de la oficialidad que el euskera tiene reconocida en dicha zona, y, en la zona denominada mixta, garantizar a la ciudadanía el derecho a la elección de lengua reconocido por la Ley Foral del Vasconce. Asimismo, el Decreto Foral pretende adecuar la actuación administrativa para dar una respuesta positiva al derecho reconocido a la ciudadanía de la zona denominada no vascófona de dirigirse en euskera a las Administraciones Públicas.

La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce, en su artículo 2.1 establece que el castellano y el euskera son lenguas propias de Navarra y, en consecuencia, toda la ciudadanía tiene derecho a conocerlas y a usarlas. En el artículo 2.2 establece la oficialidad del castellano en toda Navarra y la del euskera en los términos establecidos en el artículo 9 de la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

Dicha Ley Foral del Vasconce establece tres zonas lingüísticas en Navarra, a cuyo ámbito se refiere este Decreto Foral. Una zona vascófona, en la que el euskera y castellano son lenguas oficiales y en la que la ciudadanía tiene derecho a usar ambas lenguas en sus relaciones con las Administraciones Públicas y a ser atendida en la lengua oficial que elija. Una zona denominada mixta, en la que la ciudadanía tiene derecho a usar tanto el euskera como el castellano para dirigirse a las Administraciones Públicas de Navarra. Y una zona denominada no vascófona, en la que se reconoce a la ciudadanía el derecho a dirigirse en euskera a las Administraciones Públicas de Navarra. Así pues, la Ley Foral del Vasconce reconoce en las tres zonas el derecho de la ciudadanía a usar las lenguas propias de Navarra en sus relaciones con las Administraciones Públicas, según los términos establecidos en la misma Ley Foral, e insta a estas a tomar diferentes medidas en

eremu bakoitzean neurri desberdinak hartzera, eskubide hori modu eta maila desberdinetan gauzatzeko.

Bestalde, administrazio prozedura erkidean indarra duen araudiak herritarrei eskubidea onartzen die administrazio publikoekiko harremanetan hizkuntza ofizialaren izaera duten hizkuntzak erabiltzeko, eta, orobat, ezartzen du autonomia erkidego batean egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko organoek esku hartzen duten prozedurak interesdunak aukeratutako hizkuntza ofizialean tramitatuko direla, haren hizkuntza eskubideen arabera. Era berean, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoak gai hau bere aplikazio-esparruan arautzen du.

Zentzu berean, aipamen berezia egin behar zaio Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari. Gutun hori 1992ko ekainaren 25ean onetsi zen, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak konbentzio-izaera eman zion eta hamaika estatu kidek urte horretako azaroaren 5ean sinatu zuten, eta, horien artean, Espainiakoak, zeinak 2001eko apirilaren 9an berretsi.

Bereziki kontuan hartu dira Europako Gutun horretan agintari administratiboen eta zerbitzu publikoen gainean 10. artikuluan bildutako konpromisoak. Era berean, kontuan hartu dira gutun horren betetze-mailaren ezarpena jarraitzeko prozesuan Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2005., 2008., 2012. eta 2016. urteetako aldizkako txostenetan emandako gomendioak. Gomendio horien artean bereziki aipatzekoak dira, batetik, 2005eko irailaren 21ean onetsitako gomendioen arteko 5. puntua – puntu horretan esaten da gutunaren III. zatiak euskarari ematen dion babesa Nafarroako eremu mistoan modu egokian aplikatzeko aukera kontuan izan behar dutela agintariek–, eta, bestetik, 2016ko urtarrilaren 20an onetsitako gomendioen arteko 4. puntua –puntu horretan eskatzen da zerbitzu publikoetan hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko neurriak hartzen jarraitu behar dela, bereziki osasun zerbitzuetan–.

Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilera martxoaren 21eko 70/1994 eta uztailaren 4ko 135/1994 foru dekretuen bidez arautu zen; azken honek aurrekoa indarrik gabe utzi eta ordezkatu zuen. Geroago, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak arau hura indarrik gabe utzi eta ordezkatu zuen. Foru dekretu honi administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurtsioak jarri zizkieten eta, azkenean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak

cada zona para hacerlo efectivo, en modos y grados distintos.

Por su parte, la normativa vigente en materia de procedimiento administrativo común, reconoce el derecho de la ciudadanía, en sus relaciones con las Administraciones Públicas, a utilizar las lenguas que tienen carácter de lengua oficial, y establece que los procedimientos en los que intervengan órganos de la Administración General del Estado con sede en una comunidad autónoma se tramitarán en la lengua oficial elegida por la persona interesada, conforme a sus derechos lingüísticos. A su vez, la Ley Orgánica del Poder Judicial regula esta materia en el ámbito de su aplicación.

En este mismo sentido, merece especial mención la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, aprobada el 25 de junio de 1992 con rango de convención por el Comité de Ministros del Consejo de Europa y firmada el 5 de noviembre del mismo año por once estados miembros, entre ellos el español, que la ratificó el 9 de abril de 2001.

De modo particular se toman en consideración los compromisos contenidos en el artículo 10 de dicha Carta Europea, relativo a las autoridades administrativas y servicios públicos. Asimismo, se atiende a las recomendaciones realizadas en los informes periódicos de 2005, 2008, 2012 y 2016 por el Comité de Ministros del Consejo de Europa en el proceso de seguimiento del cumplimiento del mencionado tratado. Entre esas recomendaciones, merecen especial consideración el punto 5 de las aprobadas el 21 de septiembre de 2005, en el que se realiza la indicación expresa para que las autoridades contemplen la posibilidad de aplicar una forma apropiada de la protección que brinda la Parte III de la Carta a la lengua vasca en la zona mixta de Navarra, así como el punto 4 de las recomendaciones aprobadas el 20 de enero de 2016, en el que se solicita continuar llevando a cabo medidas para garantizar la presencia de las lenguas cooficiales en los servicios públicos, especialmente en los servicios de salud.

El uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra fue regulado mediante el Decreto Foral 70/1994, de 21 de marzo, y mediante el Decreto Foral 135/1994, de 4 de julio, que derogó y sustituyó al primero. Posteriormente, esa norma fue derogada y sustituida por el Decreto Foral 372/2000, de 11 de diciembre, que fue objeto de una serie de recursos ante la jurisdicción contencioso-administrativa y, finalmente, anulado por el Tribunal Superior de Justicia de Navarra. El uso del euskera en las

baliogabetu zuen. Nafarroako administrazio publikoetako euskararen erabilera berriz arautu zen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren bidez. Foru dekretu hau eta aurrekoa edukiz berdinak ziren eta honek ere gizartean kontrako jarrera zabala izan zuen, baita errekursoak ere. Hartara, lau artikuluko partzialki baliogabetu zituen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak eta artikuluko horietako bi ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuak indarrak gabe utzi zituen.

Nafarroako Arartekoak, elebitasunaren eta hizkuntza eskubideen gaineko 2010eko txostenean, Nafarroako Gobernuari iradoki zion Euskarari buruzko Foru Legea betetzeko 29/2003 Foru Dekretua ordezkatzeko erregelamendu orokorra prestatu eta onetsi behar zuela. Txostenean adierazten zen erregelamendu orokor horrek berriaz arautu behar zuela euskararen erabilera normala eremu mistoan, eremu horretan bizi baitira nafar gehienak eta horietako anitz euskal hiztunak dira.

Eremu euskaldunari dagokionez, Nafarroako Arartekoak, 2015eko abuztuaren 19ko txostenean, ohartarazi zuen komenigarria zela Euskarari buruzko Foru Legeko xedapenak ahalik eta lasterrena gauzatzea. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eremu euskalduneko herritarrei zuzendutako bere eskumeneko zerbitzu publikoak euskaraz ematea bermatu behar duela, gaztelaniarekin parez pareko egoera batean, bi hizkuntzen koofizialtasunetik ondorioztatzen den logikak erakusten duen bezala. Ildo horretan, txosten horrek ohartarazten du progresibotasunak gaur egun ez lukeela irismen bera izanen, progresibotasunak hori eremu euskaldunean euskara erabiltzeko eskubidea benetan gauzatzea muga dezakeen printzipio moduan hartuz, kontuan izan behar baita legea 1986an onetsi zela eta indarra hartu zuenetik hogeita hamar urte iragan direla.

Euskarari buruzko Foru Legearen hitzaurrean onartzen da hizkuntzak bizikidetzarako eta gizarteetako kideen arteko ulermenerako baliagarriak direla. Balio horrek gaur egun ere indar osoa izaten segitzen du eta gaur egungo Nafarroak bere bi hizkuntzen koexistentzia eta herritar guztien hizkuntza eskubideen errespetua ditu gizarte kohesiorako ezinbesteko elementu.

Euskarari buruzko Foru Legeak hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoan onartzen du. Zentzu horretan, begien bistakoa da, lege hori onetsi zenetik, azken hiru hamarkadetan Nafarroan euskararen egoera soziala positiboki aldatu dela, eta euskararen ezagutza asko handitu dela, bereziki belaunaldi berrien artean. Era berean, euskarazko zerbitzu publikoen eskaera handitu da. Errealitate sozial berri

Administraciones Públicas de Navarra se reguló nuevamente mediante el Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, de idéntico contenido al anterior, e igualmente contestado socialmente y recurrido, del cual cuatro artículos fueron parcialmente anulados por el Tribunal Superior de Justicia de Navarra, y dos de ellos derogados por el Decreto Foral 55/2009, de 15 de junio.

El Defensor del Pueblo de Navarra, en su informe de 2010 sobre el bilingüismo y los derechos lingüísticos, sugirió al Gobierno de Navarra la elaboración y aprobación de un reglamento general de ejecución de la Ley Foral del Vascuence que sustituyera al Decreto Foral 29/2003. El informe afirmaba que esa reglamentación general debería regular específicamente el uso normal del euskera en la zona mixta, por ser dicha zona donde se centran el mayor número de habitantes de Navarra, gran parte de ellos vascoparlantes.

En lo que respecta a la zona vascófona, el Defensor del Pueblo de Navarra, en informe de 19 de agosto de 2015, advirtió de la conveniencia de que las disposiciones de la Ley Foral del Vascuence sean una realidad cuanto antes, lo que conlleva que la Administración de la Comunidad Foral de Navarra garantice la prestación de los servicios públicos de su competencia dirigidos a la ciudadanía de la zona vascófona en euskera en una situación de paridad con el castellano, como es la lógica que se deriva de la cooficialidad entre ambas lenguas. En tal sentido, dicho informe advierte de que la progresividad a veces mencionada como principio que pueda limitar el ejercicio efectivo del derecho a relacionarse en euskera en la zona vascófona ya no tendría hoy el mismo alcance, puesto que se trata de una ley aprobada en 1986 y de cuya vigencia han transcurrido treinta años.

El valor de las lenguas para la convivencia y entendimiento entre los miembros de las sociedades que reconoce la Ley Foral del Vascuence en su preámbulo mantiene hoy día toda su vigencia, y la Navarra actual tiene en la coexistencia de sus dos lenguas y en el respeto de los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía un elemento fundamental para la cohesión social.

La Ley Foral del Vascuence reconoce la condición dinámica del fenómeno lingüístico. En este sentido, es evidente que en las tres últimas décadas, desde la aprobación de dicha ley, la situación social de la lengua vasca en Navarra ha evolucionado positivamente y el conocimiento del euskera, especialmente entre las nuevas generaciones, ha aumentado de forma considerable. De igual modo, se

hau onartu behar da eta; hori dela-eta, beharrezkoa da araudia berrikustea, hau da, egokitzea eta eguneratzea.

Euskarari buruzko Foru Legearen esparruaren barnean, foru dekretu honetan ekintza positibo eta proaktiboa gehitu da, Nafarroako berezko hizkuntzetako baten, euskararen, egoera minorizatuazuzentzeko eta administrazio publikoek eta sektore publiko instituzionaleko entitateek benetako eskaintza baten bitartez euskararen erabilera sustatzeko. Entitate horiek sektore publikokotzat hartu behar dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Ildo horri dagokionez, foru dekretu hau Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko printzipioei egokitzen zaie. Hala, Gutunaren 7. artikuluan adierazten da eskualdeetako eta eremu urriko hiztunen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna sustatu eta haien egoera bereziak kontuan izateko bideratutako hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartzeak ez dituela hedatuagoak diren hizkuntzetako hiztunak baztertuko.

Bestalde, foru dekretu honek nafar guztiek hartu behar dituzten zerbitzu administratiboaren espezifikotasuna onartzen du, zerbitzu horien kokapena edozein izanik ere. Horregatik, Foru Komunitate osoan jarduten duten zerbitzuak zerbitzu nagusizat hartuko dira eta haiei ezarriko zaien erregulazio linguistikoa haien zerbitzuen, irudiaren eta komunikazioen izaera orokorraren arabera izanen da eta ez zerbitzu horiek kokatuta dauden hizkuntza eremuaren arabera.

Horiek horrela, beharrezkoa jotzen da Nafarroako administrazio publikoetan Nafarroako berezko hizkuntzen erabilera arautzen duen Foru Dekretua prestatzea eta, hala, jarduketara administratiboak egokitzea gizarte errealitate berrira eta osoki bermatzea Nafarroako herritarrei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak.

ha incrementado la demanda de servicios públicos en esta lengua. Esta nueva realidad social ha de ser reconocida, y, por todo ello, se hace preciso revisar la normativa con el fin de adecuarla y actualizarla.

Dentro del ámbito de la Ley Foral del Vascuence, este Decreto Foral incorpora una acción positiva y proactiva dirigida a corregir la situación minorizada de una de las lenguas propias de Navarra, el euskera, promoviendo el uso de este idioma mediante una oferta real por parte de las Administraciones Públicas y de las entidades del sector público institucional, en la medida en que estas entidades son también parte del sector público, tal y como establece la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. A este respecto, el presente Decreto Foral se ajusta a los principios que la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias recoge en su artículo 7, donde se indica que la adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinadas a promover una igualdad entre los hablantes de dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación para con los hablantes de las lenguas más extendidas.

Este Decreto Foral reconoce la especificidad de los servicios administrativos que, independientemente de su ubicación, han de atender al conjunto de la población de Navarra. Por ello, los servicios que tengan como ámbito de actuación toda la Comunidad Foral se considerarán servicios centrales y la regulación lingüística que se les aplique no vendrá determinada por la zona en la que se radiquen sino por el carácter general de sus servicios, imagen y comunicaciones.

En virtud de lo expuesto, con el objetivo de adecuar las actuaciones administrativas a la nueva realidad social, garantizando de forma plena los derechos lingüísticos reconocidos a la ciudadanía de Navarra, se considera necesaria la elaboración del Decreto Foral por el que se regula el uso de las lenguas propias de Navarra en sus Administraciones Públicas.

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean / Pamplona, a 15 de febrero de 2017

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA  
DIRECTOR GERENTE DE EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA